



Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatu  
Bazkun  
Ohoretsua

Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya

# ABORTATZEKO ESKUBIDEAREN MURRIZKETA





MUTUALIDAD DE LA  
ABOGACIA

# Tú que puedes

Aprovéchate de la Mutualidad de la Abogacía



M<sup>a</sup> del Prado Guzmán López  
Mutualista desde 2002

Ignacio Peña Robledo  
Mutualista desde 1997

Marta Isabel Uriarte  
Mutualista desde 1987

José Manuel Cuerva  
Mutualista desde 2008

## Tú que puedes, benefíciate de todas las ventajas de ser mutualista:

<b>Sin ánimo de lucro</b>	<b>Todos los beneficios para el mutualista<sup>1</sup></b>
<b>Gestión independiente de las inversiones</b>	<b>Persiguiendo siempre la máxima seguridad</b>
<b>Rentabilidad para tus ahorros</b>	<b>4,5% en 2012 + complemento a final de año<sup>2</sup></b>
<b>Tus seguros de vida a menor coste</b>	<b>Gracias a nuestra especialización</b>
<b>Ventajas en servicios bancarios, seguros y otros</b>	<b>Con nuestro Club Privilegia</b>
<b>Disfruta de productos exclusivos para los abogados</b>	<b>De previsión complementaria y seguros personales</b>
<b>Gestión profesional</b>	<b>Compatible con la autogestión por los abogados</b>
<b>Costes reducidos</b>	<b>Estructura simple y distribución directa</b>
<b>Tecnología</b>	<b>Web interactiva para cualquier trámite o consulta</b>
<b>Transparencia</b>	<b>Información trimestral, y diaria en la web</b>

Para más información entra en  
[www.mutualidadabogacia.com](http://www.mutualidadabogacia.com)

escribe un e-mail a  
[buzon@mutualidadabogacia.com](mailto:buzon@mutualidadabogacia.com)

o llama al Servicio de Atención al Mutualista  
**902 25 50 50**

1. Los resultados de la Mutualidad revierten directamente en los propios mutualistas excepto el excedente que se debe destinar a reforzar la solvencia de la entidad.  
Rentabilidad a cuenta, a la que se adiciona el complemento para alcanzar la rentabilidad total del 2012. La rentabilidad histórica del Plan Universal para los mutualistas ha sido  
2. del 5,50% anual promedio desde su creación. Rentabilidades pasadas no garantizan rentabilidades futuras.

**L** Alberto Ruiz Gallardón Justizia ministroak aurreratu duenez, haurdunaldia borondatez etetea arautzen duen Legearen eraldaketaren bidez, ezabatu egin nahi dira haurdunaldiaren lehenengo 14 asteetan haurdunaldia askatasunez etetea eta fetuaren malformazioa dela-eta haurdunaldia etetea agintzea; ziurrenik, aldaketa horiek Estatuko gobernuak prestatzen ari den erreforma sartuko dira. Mota horretako legeria onartuko balitz, Espainia sexu- eta ugaltze-eskubideei eta aborturako sarbideari dagokienez Europako herrialde murriztaileenetakoa izango litzateke, herrialde hauen aurretik bakarrik: Polonia, Irlanda eta Malta. Azken herrialde horretan, abortua kasu guztietan debekatuta dago.

Europako herrialde gehienetako legerietan epeak eta agindu terapeutikoak konbinatzen dira. Legeriarik malguena Holandan dago; bertan, abortu libre bermatuta dago haurdunaldiaren lehenengo 24 astean barruan. Europako herrialdeetako gainerako legerietan, epeak askotarikoak dira: 10 aste Portugalen, 90 egun Italian, 12 aste Alemanian, Frantzia, Grezian, Belgikan eta Bulgarian, 14 aste Errumanian eta 18 aste Suedian. Azken herrialde horretan, abortuari kasu jakin batzuetan zigorra kendu zion 1938an, eta epeen legea 1975ean onartu zuen.

Herrialde horietan guztietan, ezarritako epeetatik harago zenbait agindu ezartzen dira, arrazoi hauengatik: fetuaren malformazioak, gaixotasun larriaren diagnostikoa, edo emakumearen osasun fisiko edo psikikoko arrisku larria. Kasu horietako asko gaur egungo Sexu eta Ugaltze Osasunari eta Haurdunaldia Borondatez Eteteari buruzko Legean jasota daude, 2010ean indarrean jarri zen horretan.

Bitxia da fetuaren malformazioengatik haurdunaldia etetea ezartzen duen kasua desagertzea, arrazoi moduan emanda desgaitasuna duten pertsonen eta haien familiek gaur egun Mendetasun Legeak ematen duen babesa dutela; izan ere, barregarria eta inozoa da pentsatzea –batez ere gaur egungo krisi garaian- aurreko hori baieztatzen dutenak benetan sinestea lege horren mekanismoek behar den besteko laguntza eskaintzen dutela desgaitasuna duten pertsonen familiei bizitza duina eta gutxieneko aukerak dituen bermatzeko.

Zalantzarik gabe, iritzi horien atzealdean oinarri ideologiko bat dagoela, bizitzaren erlijio-ikuskerak oinarri hartuta. Horren arabera, ez gara gure bizitzaren jabeak, “aldi baterako edukitza” baino ez dugu, eta goragoko beste izaki edo ente batzuek –erlijio-pentsamenduaren arabera- erabaki dezakete bizitza horren xehetasunei buruz. Hala ere, pentsamendu horren aurrean, Osasunaren Mundu Elkartearen arabera, legeak zenbat eta murriztaileagoak izan, haurdunaldia ziurtasunik gabe eteteko kasuen kopuruak gora egiten du –horrek emakumeen osasun fisiko eta psikikoko dituen arriskuekin-. Beraz, egin dezagun gogoeta oraingoan, apur bat bakarrik bada ere.

**L**a reforma de la Ley que regula la interrupción voluntaria del embarazo, tal como ha ido avanzando el Ministro de Justicia, Alberto Ruiz Gallardón pretende suprimir la libre interrupción voluntaria del embarazo dentro de las primeras 14 semanas de gestación o eliminar la indicación por malformación fetal cambios que, probablemente serán introducidos en la referida reforma que prepara el Gobierno del Estado. De aprobarse, finalmente, una legislación con esas características convertiría a este Estado en uno de los países europeos más restrictivos en materia de derechos sexuales y reproductivos y de acceso al aborto, solo por delante de Polonia, Irlanda, o Malta, único país europeo en el que el aborto está prohibido en cualquier supuesto.

La gran mayoría de países europeos tiene legislaciones que combinan plazos con indicaciones terapéuticas. La legislación más flexible existe en Holanda, garantizando el aborto libre dentro de las primeras 24 semanas de gestación. En el resto de legislaciones de países europeos los plazos varían entre las 10 semanas de Portugal, los 90 días de Italia, las 12 semanas de Alemania, Francia, Grecia, Bélgica o Bulgaria, las 14 de Rumanía, o las 18 de Suecia, que despenalizó el aborto en 1938 en ciertos supuestos y aprobó la ley de plazos en 1975

Todos estos países establecen una serie de indicaciones más allá de los plazos especificados, ya sea por malformaciones fetales, diagnóstico de enfermedad particularmente grave, o serio riesgo para la salud física o psíquica de la mujer. Muchos de estos supuestos son los que contempla la actual Ley de Salud Sexual y Reproductiva y de Interrupción Voluntaria del Embarazo, que entró en vigor en 2010.

No deja de ser curioso que se intente justificar la desaparición del supuesto que permite practicar la interrupción del embarazo por malformaciones del feto, amparándose en que las personas discapacitadas y sus familias gozan, actualmente, de la protección que aporta la Ley de Dependencia, ya que, resulta grotesco e ingenuo pensar -especialmente en época de crisis, que alguno de los que defienden tal afirmación crean, de verdad, que los mecanismos de esta ley ofrecen la necesaria y suficiente ayuda para sostener una vida digna y con mínimas oportunidades a las familias de personas discapacitadas.

No hay ninguna duda de que detrás de las opiniones al respecto hay un fondo ideológico que tiene que como base una concepción religiosa de la vida, según la cual, no somos siquiera dueños de la misma, sino que gozamos de una suerte de “posesión temporal” independientemente, de que otros seres o entes superiores- según sea el pensamiento religioso- sean quienes, puedan decidir los destinos de la misma. Sin embargo, frente a esa arraigada corriente de pensamiento se presenta el dato de la Organización Mundial de la Salud, que concluye que donde las leyes son más restrictivas, las tasas de interrupciones inseguras, -con los correspondientes riesgos para la salud física y síquica de las mujeres,- son más altas. Reflexionemos pues, esta vez, aunque sólo sea un poquito.



**Bizkaia  
Jaurerriko  
Abokatuen  
Bazkun  
Ohoretsua  
Ilustre  
Colegio de  
Abogados  
del Señorío  
de Vizcaya**

#### **Decano / Dekanoa**

Nazario Oleaga Páramo Consejo de Redacción /  
Erredakzio Batzordea  
Ana Bermejo Arteagabeitia  
Beatriz Barquín Torre  
Ignacio Alonso de Errasti

#### **Colaboradores / Laguntzaileak**

César Gallastegi Aranzabal  
Garazi Arraibi Larrea  
Jorge Marqueta Andrés  
Eduardo Ranedo Fernández  
Idoia Manzarraga Zamalloa  
Alberto Martínez Ruiz **Fotografía / Argazkigintza**  
E. Moreno Esquivel



# Abogacía Solidaria

## NO DEJES QUE LA POBREZA IMPONGA SU LEY



[www.abogaciasolidaria.es](http://www.abogaciasolidaria.es)

#AbogaciaSolidaria

La Abogacía Española ha otorgado el Premio Derechos Humanos 2013 al Banco de Alimentos y a Cáritas por su labor con las víctimas de la crisis. Pero no basta con premiar, hay que ayudar.

3.000.000 de personas viven con menos de 307 euros al mes en España

### ¿Con cuánto ayudar?

Con 1 SMS solidario de 1,20 € donas una ración de alimentos.\*

Con 5 € donas un menú en un comedor social

Con 50 € llenas el carro de una familia en un economato solidario

Con 100 € financias durante un mes el comedor escolar de un niño

Con un día de tus ingresos puedes mejorar la vida de muchas personas.

### ¿Cómo ayudar?

Enviando un SMS Solidario con **ABOGACIA SOLIDARIA** al 28014

En metálico en tu Colegio de Abogados

Con tarjeta de crédito o Paypal desde [www.abogaciasolidaria.es](http://www.abogaciasolidaria.es)

Por transferencia bancaria a la cuenta **0075 0001 81 0607263163**  
(poniendo como concepto el nombre del Colegio de Abogados)



Todo lo recaudado se destinará a proyectos de:



\* Servicio de SMS solidario: Coste 1,20 €. El importe íntegro se destinará a proyectos de Banco de Alimentos y Cáritas. Servicio de SMS solidario operado por Altiria TIC, [www.altiria.com](http://www.altiria.com), y la Asociación Española de Fundraising, [www.aefundraising.org](http://www.aefundraising.org), Nº. Atn. Ctte. 902 00 28 98. Apdo. de correos 36059 - 28080 Madrid. Válido para Movistar, Vodafone y Orange.

azaroa 2014

06

## INFORMAZIOA

Aborturako eskubidearen murrizketa emakumeen giza eskubideen urratze moduan

Eskudirutan egindako ordainketen ondoriozko gastuak kengarri izateari jarritako mugak

### KONKURTSOKO GORABEHERAK

Hartzekodun bati komeni zaio zordunaren konkurtsoa eskatzea?



06



13

## BERRIAK

Zuzendaritza exekutibo berria Abokatu Gazteen taldean



14

14

## JARDUNALDIAK

Berrikuntzak hel-en ekainaren 5ko 4/2013 legea indarrean jarri ondoren. Botatze epaiaketaren aldaketak. Abantailak eta desabantailak errentatzailearentzat eta errentariarentzat.



22

## BAZKUNEKO LIBURUTEGIA

24

## LEGEGINTZA BERRITASUNAK

26

## KULTUR ERANSKINA



26

# ABORTURAKO ESKUBIDEAREN MURRIZKETA EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN URRATZE MODUAN

*Marta Dolado Galíndez. Abokatua*



Abokatu askoren ustez, Gallardón ministroak historiako orrietan agertu nahi du Zigor Kode atzerakoi eta ultrakontserbadorearen bultzatzailea izateagatik. Testu horrek gehiago erantzuten die iritzi/presio talde batzuen eskakizunei benetako funtsa duten politika kriminologikoei baino.

Artikulu honetan, zehatz esanda, sexu eta ugaltze osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren iragarritako eraldaketaz arituko naiz.

Ministro jaunak egin dituen adierazpen ugariei erreparatuz, bi gauza baino ez daude ziur abortuari buruzko etorkizuneko legearen inguruan: 1985eko kasuen sistemara itzuliko dela, gaur egungo epe ereduaren orde, eta 16 urtetik gorako emakumeek gurasoen baimenik gabe abortatzeko eskubidea ezabatuko dela.

Alderdi Popularrak 2010ean konstituzio-aurkakotasun errekurtsua aurkeztu zuen —ondorio juridikoei dagokionez alderdiaren jarrera erakusten du—. Horrez gain, fetuaren malformazioaren ondoriozko abortua gizabanako osasuntsu eta gaixoen arteko “bereizkeria” dela esaten da, et ahoari “ezin da onartu”. Gogoan izan behar dugu fetuaren malformazioaren kasua Konstituzio Auzitegiak babestu zuela 1985ean. Hala ere,

2010eko errekurtsoren arabera, egoera aldatu egin da, orain “Mendekotasun Legea baitago desgaitasuna dutenei eta haien familiei laguntzeko”.

Artikulu honen izenburuan esaten den moduan, aborturako eskubidea murriztea emakumeen giza eskubideak urratzea da, zehatz esanda, sexu- eta ugaltze-eskubideak.

## Sexu- eta ugaltze-eskubideen definizioa

Osasunaren Mundu Erakundeak 2002an esandakoaren arabera, sexu-eskubideen barruan sartzen dira lege nazionaletan, giza eskubideen nazioarteko agirietan eta beste adostasun akordio batzuetan aitortutako giza eskubideak, eta horiek giza eskubide unibertsalen osagai eta atal zatietan dira.

Horien barruan sartzen da pertsona guztiek, inolako hertsadura, bereizkeria eta indarkeriarik gabe, hauetarako duten eskubidea:

- osasun maila al bait handiena, sexualitateari dagokionez, sexu- eta ugaltze-osasuneko zerbitzuetarako sarbidea barne hartuta;
- sexualitateari buruzko informazioa bilatu, jaso eta zabaltzea;
- sexu hezkuntza;
- gorputzaren osasuna errespetatzea;
- bikotea aukeratzea;
- sexualki aktiboa izatea edo ez izatea erabakitzea;

- sexu-harreman adostuak; - ezkontza adostua; - seme-alabak izatea edo ez izatea eta noiz izatea erabakitzea; eta -sexu-bizitza egokia, segurua eta atsegina izatea.

“Ugaltze eskubideak” izendapena oraintsu sortu da, Amsterdamen ezarri zen 1984an, Emakumei eta Osasunari buruzko Nazioarteko Bileran. “Reprorights” ere esan izan zaie. Nazio Batuen Giza Eskubideei buruzko Lehen Konferentzian, Teheranen, 1968an, hitz egin zen lehenengoz seme-alaba kopurua eta haien arteko jaiotza-tartea askatasunez hautatzeko giza eskubideari buruz. Nazio Batuek Cairon 1994an egindako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian aipatu zen lehenengoz ugaltze eskubideen kontzeptua.

Konferentzia horretan egin zen eskubide horien lehenengo esanbidezko formulazioa: “ugaltze eskubideen bidez, bikote eta gizabanako guztiei aitortzen zaie seme-alaben kopurua, haien arteko tartea eta haiek izateko aukera askatasunez eta modu arduratsuan erabakitzeke eta hori egiteko informazioa eta baliabideak izateko eskubidea, eta sexu- eta ugaltze-osasunaren estandarrik handiena lortzeko eskubidea. Horren barruan sartzen da pertsona guztiak ugaltzeari dagokionez bereizkeriarik, hertsatzerik eta indarkeriarik gabe erabakiak hartzeko duten eskubidea, giza eskubideen baliabideek azaltzen duten moduan”.

Urtebete geroago, Beijingen, Txinan, Emakumeen Munduko IV. Konferentzia egin zen. Ekintza Planean jas ozen ugaltze-eskubideen barruan zenbait giza eskubide sartzen direla, eta horiek aitortuta daudela lege nazionaletan, giza eskubideei buruzko nazioartekoa girietan eta Nazio Batuen bestelako agirietan.

Konferentzian hau ere esan zuten: ...“Eskubide hau gauzatzean, bikoteek eta gizabanakoek kontuan hartu behar dituzte jaiotako eta etor daitezkeen seme-alaben beharriak eta erkidegoarekiko dituzten betebeharrak. Guztien eskubide horiek modu arduratsuan gauzatzea sustatze aizan behar da estatuko eta erkidegoko politika guztien oinarri ugaltze-osasunaren arloan, familia-plangintza barruan hartuta”.

Ugaltze eskubideak giza eskubide moduan aitortzea herrialdeetako eta Nazioarteko Zuzenbide Publikoko barne legerian gertatu da, eta biztanleria eta garapenaren nazioarteko tresnetan jasota dago. Era berean, Emakumeena urkako bereizkeria modu guztiak kentzeari buruzko Konbentzioan, Salvadoreen eta Espainian barne zuzenbidea dena, adierazi zen estatuen betebeharra dela emakumei gizonen eskubide berberak bermatzea, berdintasun egoeran.

Beijingeko Konferentzian (1995), ugaltze osasuna honela definitu zen: “sexu-bizitza atsegina eta arriskurik gabeaz gozatzeko eta ugaltzeko gaitasuna, eta hori egitea, ez egitea, noiz eta nolako maiztasunarekin egitea erabakitzeke askatasuna”.

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, ugaltze osasuna da ongizate fisiko, mental eta soziala ugaltze sistemari dagozkion alderdietan bizitzaren etapa guztietan. Ugaltze osasuneko arreta da ugaltze-osasunari eta ongizateari laguntzen dioten metodo, teknika eta zerbitzuen multzoa, ugaltze-osasunaren arazoak prebenituz eta konponduz. Barruan hartzen du sexu-osasunaren arreta, horren bidez bizi-kalitateak eta harreman pertsonalak hobetu nahi baitira.

Kairon, Egipton, 1994an egindako Biztanleriari eta Garapenari buruzko Munduko Konferentzian definitu zen historian lehenengoz giza eskubideen multzo bat ugaltze eskubide moduan. Kairoko Ekintza Programan ezarritakoaren arabera, ugaltze eskubideek “barruan hartzen dituzte lege nazionaletan, giza eskubideei buruzko nazioartekoa girietan eta adostasunez

onets idiren Nazio Batuen bestelakoa girietan aitortutako zenbait giza eskubide. Eskubide horien oinarria da aitortzea bikote eta gizabanako guztiak oinarritzko eskubidea dutela seme-alaben kopurua, jaiotzen arteko tartea askatasunez eta modu arduratsuan erabakitzeke, eta horretarako informazioa eta bitartekoak izateko, baita sexu- eta ugaltze-osasunaren mailarik handienaz gozatzeko ere. Horrez gain, ugaltzeari buruzko erabakiak bereizkeriarik, hertsatzerik eta indarkeriarik jasan gabe hartzeko eskubidea dute, giza eskubideen agirietan ezarritakoarekin bat etorritik. Eskubide hori egikaritzeko, bikoteek eta gizabanakoek jaiota eta jaiotze gabe dauden seme-alaben beharriak eta erkidegoarekiko dituzten betebeharrak kontuan hartu behar dituzte”.

Sexu eskubideak ez dira bakarrik sexu-harremanak izatea, oinarritzko zenbait giza eskubide biltzen dituzte. Hori dela eta, adierazten dugu aborturako eskubidea murriztea giza eskubideak urratzea dela.

### Bizitza eskubidea

Bizitza eskubidea jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan, Eskubide zibil eta Politikoaren Nazioarteko Itunaren 6. artikuluan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 6. artikuluan, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 2. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren 4. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Arabiarren 5. artikuluan, eta Kairoko Ekintza Programaren 8.21 eta 8.27 artikuluetan.

Tresna horietan jasotako bizitza eskubidea osasunari lotutako gaietan aplikatzen hasi da, izaera positiboari erreparatu, eta osasunari eta giza duintasunari lotuta. Ildo horretatik, Giza Eskubideen Batzordearen esanetan, “bizitza eskubidea” adierazpena gizakiari dagokio eta ezin da modu murriztailean aplikatu; eskubide hori babesteak eskatzen du estatuek neurri positiboak hartzea.

### Osasunerako eta mediku arretarako eskubideak

Osasunerako eta mediku arretarako eskubidea nazioarteko itun askotan aitortuta dago. Adibidez, Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren 12. artikuluan arabera, estatu kideek aitortzen dute “persona guztiak osasun fisiko eta mentalaren mailarik gorenenez gozatzeko duten eskubidea”. Emakumeen aurkako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Konbentzioaren (EBMEK) 12. artikuluan arabera, “estatu kideek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte emakumeena urkako bereizkeria ezabatzeko mediku arretan, gizonen eta emakumezkoen arteko berdintasun egoeran, mediku arretako zerbitzuetara sarbidea izatea bermatzeko, baita familia-plangintzako zerbitzuetarako ere.

### Bereizkeriarik ezarazko eta berdintasunerako eskubidea

Osasunerako eskubideari dagokionez, Emakumeen aurkako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Konbentzioak debekatu egiten du emakumeen aurkako bereizkeria mediku laguntzako zerbitzuetarako sarbidean, eta ohar bat egiten du landa-eremuko emakumeen aurkako bereizkeria ezabatzeko osasun arloko zerbitzuetarako eta informaziorako sarbidean. Estatuek hau egin behar dute:

“Lehentasuna eman behar diote nahi ez den haurdunaldiaren prebentzioari familia-plangintzaren eta sexu-hezkuntzaren bidez, eta amatasunetik eratorritako heriotza-tasak murriztu behar dituzte arriskurik gabeko amatasun zerbitzuen bidez

eta jaio aurreko laguntzaren bidez. Ahal den neurrian, abortua zigortzen duen legeria zuzendu beharko litzateke, abortuak egin dituzten emakumeei ezarritako zigor-neurriak bertan behera uzteko.

### Segurtasun pertsonalerako eskubidea

Segurtasun pertsonalerako eskubidea jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 3. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 9. artikuluan, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren 37. artikuluan, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 5. artikuluan, Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 7. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren 6. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Arabiarraren 5. artikuluan, eta Kairoko Ekintza Programaren 7.2 eta 7.11 artikuluetan.

Segurtasun pertsonalerako eskubidea, osotasun fisikorako eskubidea barne hartuta, oinarrizkoa da abortuaren eta giza eskubideen gaian. Haurdunaldi bat nahi ez dena bada eta legeak eskatzen badu emakumeak haurdunaldi horrekin jarraitzea, egoera hori gobernuak emakumearen gorputzean egindako esku-sartzea izan daiteke, eta modu horretan, eskubide hori urratu egiten da. Modu horretan, abortuari dagokionez, pertsonaren segurtasunerako eskubidea honela interpretatu daiteke: emakumea ez behartzea haurdunaldi bat amaiera arte jarraitzea, edo haurdunaldia etetera. Horren ordez, emakumeak berek abuz erabaki ahal izango du nahi gabeko haurdunaldiarekin aurrera egin nahi duen edo ez.

### Askatasun eskubidea

Abortua zigortzea emakumeen askatasun eskubidea urratzea da. Abortu bat egin duten emakumeei ezarritako epaiak eraso gehigarria dira emakumeen eskubideetarako, haien osasun-beharrizanei erantzun nahi dieten emakumeak nahierara espetxeratzen baitira.

Emakumeen aurkako bereizkeria ezabatzeko Batzordeak gobernuari legeak berrikusteko eskatu die borondatez abortuak egiten dituztenen zigorrak eta espetxeratzeak eten ditzaten.

Askatasun eskubideari mehatxu egiten zaio emakumeak konbentzitzen dituztenean mediku laguntzarik eska ez dezaten; izan ere, polizia agintarien aurrean medikuek edo osasun arloko beste profesional batzuek salatu ditzaten beldur dira, mediku edo profesional horiek emakumearen ekintza bidegabearen gaineko susmorik baldin badute.

Gainera, askatasun eta segurtasun eskubidea auzitegi nazionalak abortu kasuetan aplikatu dute emakumeek seme-alabak izan nahi dituzten, noiz eta zein maiztasunekin erabakitzeke duten askatasuna babesteko.

### Pribatutasunerako eskubidea

Eskubide hau babestuta dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 12. artikuluan, Haurren Eskubideen konbentzioaren 16. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 17. artikuluan, Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 11. artikuluan, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 8. artikuluan, Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 11. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren 4, 5, 18 eta 29. artikuluetan, eta Giza Eskubideen Gutun Arabiarraren 17 eta 38. artikuluetan.

Haurdunaldiei eta amatasunari buruzko erabakiak oso pertsonalak dira eta, hain zuzen ere, interes mota hori babestu behar du pribatutasunerako eskubideak.

Abortuari dagokionez, emakumearen pribatutasunerako eskubide hori mehatxatuta egon daiteke inguruabar askotan.

Lehenengo eta behin, emakume haurdunaren pribatutasunerako eskubideak boterea ematen dio abortua izan nahi duen edo ez erabakitzeke, eta emakume batek ere ez du erabaki hori ihartu behar zigor jazarpen baten mehatxua duela.

Bigarren, pribatutasunerako eskubidea mehatxatuta dago osasun arloko langileek abortua nahi duten edo abortuaren osteko arreta behar duten emakumeei buruzko informazio konfidentziala zabaltzen denean.

Hirugarren, emakumeen pribatutasunerako eskubidea urratu egiten dute aborturako sarbidea ezkontidearen baimenaren mende jartzen duten politikek.

### Informaziorako eskubidea

Eskubide hau esanbidez jasota dago Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 19. artikuluan. Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konbentzioaren VII. artikuluan, hau ezarri da: "Pertsona guztiek eskubidea dute haien osasun egoerari, sexualitatearen eta ugalketaren arloko eskubideei eta erantzukizunei, ugalkortasuna arautzeko metodoen onura, arrisku eta eragingarritasunari eta haurdunaldiak kasu zehatz bakoitzerako dituen inplikazioei buruzko informazio argia jasotzeko".

Horrez gain, ugaltze osasunerako informazioaren garrantzia Emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 10(h) artikuluan azpimarratuta dago. Horren arabera, emakumeek izan behar dute:

"Osasuna zaintzen laguntzen duen informazio material zehatzerako sarbidea"

Informaziorako eskubidea, zehatz esanda osasunerako eskubidearekin lotuta dagoen neurrian, betebeharrak negatiboa du estatuaren aldetik hirugarrenek emandako informazioan eskurik ez sartzeko, eta betebeharrak positibo bat du, osasuna eta ugaltze eskubideak babestu eta sustatzeko informazio osatu, zuzen eta beharrezkoa emateko, abortuari buruzko informazioa barne hartuta.

### Tratu anker, jasangaitz eta umiliagarria ez jasateko eskubidea

Tratu anker, jasangaitz eta umiliagarria ez jasateko eskubidea jasota dago Giza Eskubideen Adierazpenaren 5. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 7. artikuluan, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioaren 37. artikuluan, Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 3. artikuluan, Giza Eskubideen Amerikako Konbentzioaren 5. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Afrikarraren 5. artikuluan, Giza Eskubideen Gutun Arabiarraren 13. artikuluan eta Kairoko Ekintza Programaren 4, 4.9 eta 4.10 artikuluetan.

NBEko Giza Eskubideen Batzordearen esanetan, abortu legeko eta segururako sarbideari jarritako murrizketek tratu anker, jasangaitz eta umiliagarria ekar dezaketen egoerak sor ditzakete, hala nola abortuaren osteko mediku arretarik ez izatea.

### Seme-alaba kopurua eta jaiotzen arteko tartea erabakitzeke eskubidea

Eskubide hori nazioarteko adostasuna duten agiri askotan errepikatu da. Esaterako, Emakumeen aurkako bereizkeria

modu guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 16(e) artikuluan hau ezarri da:

“Estatu kideek neurri egokiak hartuko dituzte emakumeena urkako bereizkeria ezabatzeko ezkontzari eta familia harremanei lotutako gai guztietan, eta zehatz esanda, gizonen eta emakumeen arteko berdintasun baldintzetan, hauek bermatuko dituzte: (e) Seme-alaba kopurua eta jaiotzen arteko tartea askatasunez eta modu arduratsuan erabakitze eskubidea eta eskubide horiek egikaritzeko informazioarako, hezkuntzarako eta bitartekoetarako sarbidea izateko eskubidea”.



Bestalde, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentziaren Ekintza Programaren 7.2 paragrafoan azaltzen denez, ugaltze-osasunaren kontzeptuak esan nahi du pertsonak askatasuna daukatela ugalduko diren edo ez, noiz eta zein maiztasunez erabakitze. 7.3 paragrafoan aipatzen da bikoteek eta gizabanakoek seme-alaba kopurua, jaiotzen arteko tartea erabakitze eta eskubide hori egikaritzeko beharrezko informazioa eta baliabideak izateko oinarritzko eskubidea dutela. Hau da, Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konbentzioan jaso egin da Emakumeen aurkako bereizkeria modu guztiak ezabatzeko Konbentzioaren 16(e) artikuluan ezarritako printzipioa, hots, seme-alaba kopurua eta jaiotzen arteko tartea askatasunez eta modu arduratsuan erabakitze eskubidea, baina aitortu egiten da eskubide hori ez dela soilik gizonarena eta emakumearena ezkontzaren barruan; “bikote eta gizabanakoei modu egokian aitortu behar zaie”:

### Aurrerapen zientifikoaren onurez gozatzeko eskubidea

Ekonomia, Gizarte eta Kultura Eskubideen Nazioarteko Itunaren 15 1.b) artikuluan hau ezarri da: “Estatu kideek Itun honetan

aitortzen dute pertsona guztiak hauetarako duten eskubidea: b) Aurrerapen zientifikoaren eta horien aplikazioen onurez gozatzea”.

### Erlijio- eta kontzientzia-askatasunerako eskubidea

Erlijio eta kontzientzia askatasunerako eskubidea jasota dago Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 18. artikuluan, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunaren 18. artikuluan, Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 14. eta 30. artikuluetan, eta Giza Eskubideen Europako Konbentzioan.

18. artikulua: Pertsona orok eskubidea du pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako; eskubide horren barruan sartzen da erlijioa edo sinesmena aldatzeko askatasuna eta erlijioa edo sinesmena modu individual eta kolektiboan adierazteko askatasuna, publikoan zein pribatuan, hezkuntzaren, praktikaren, gurtzaren eta betetzearen bidez.

14. 1 artikulua: Estatu kideek haurrek pentsamendu-, kontzientzia- eta erlijio-askatasunerako duen eskubidea errespetatuko dute.

9. artikulua: Pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasuna: 1. Pertsona orok eskubidea du pentsamendu, kontzientzia eta erlijio askatasunerako; eskubide horrek barruan hartzen du erlijioa edo sinesmena kaldatzeko askatasuna.

### Fedea gai pertsonala da, abortua bezala.

Erlijio eta kontzientzia askatasunerako giza eskubideak ez du mugarik, eta ezarrita dauden eta ez dauden erlijioei eta erlijio bat ez izateko eskubideari aplikatzen zaie. Era berean, erlijio askatasunak barruan hartzen du erlijio baten doktrinen arabera modu eskusiboan edo nagusiki diseinatutako legeak betetzeko betebeharretik aske izatea, eta barruan hartzen du era berean norbere kontzientziaren arabera jarduteko askatasuna defendatzen ez diren erlijio-doktrinei dagokienez.

**Laburbilduz**, sexu eskubideak eta ugaltze eskubideak kultura eta historia testuinguruei lotuta daude, eta bilatzen dute sexu berdintasuna eta ekitatea, bereizkeria modu guztietatik aske egoteko askatasuna, aniztasuna errespetatzea, emakume guztiak haien amatasunari buruz erabakitze duten eskubidea, argudio zientifikoetan oinarritutako informazio egiazko eta egokirako sarbidea izatea, sexu-lehentasanak adierazteko eta harreman adostuak izateko eskubidea, intimitatea eta bizitza pribatua errespetatzea, konfidentzialtasunaren errespetua barne hartuta, metodo antisorgailu seguru, eraginkor, lorgarri eta egokietara sarbidea izatea; osasun zerbitzu integralak eta kalitatezkoak, sexu-hezkuntza integrala, laikoa eta zientifikoa; sexualitatea tortura, hertsatze, esplotazio, sexu-abusu eta beste edozein motatako indarkeriarik gabe gauzatzeko errespetua.

Espainiak goian aipatutako tresna guztiak berrets iditu. Hori dela eta, herrialdeko zuzenbide positiboaren atal dira, eta ondorioz, horietan ezarritako eskubideak errespetatu behar ditu, eta horiek aitortzea sustatu eta horiek aplikatzea bermatu behar du.

Izatez, gure Bazkunaren egoitzan bildu zen EMAKUMEEN ESKUBIDEEN NAZIOARTEKO AUZITEGIAREN (VIENA +20, EUSKALHERRIA 2013) 2013ko ekainaren 7ko Ebazpenak espainiar estatuari ESKATZEN dio nazioarteko arau, itun eta konferentzia guztiak errespetatu behar dituela sexu- eta ugaltze-eskubideen arloan, eta, beraz, baita giza eskubideen arloan ere, gobernuan dagoen alderdiak abortuaren inguruan iragarritako lege-erreformaren aurrean.

# ESKUDIRUTAN EGINDAKO ORDAINKETEN ONDORIOZKO GASTUAK KENGARRI IZATEARI JARRITAKO MUGAK

*Gonzalo Apoita. Abokatu-ekonomista*

Urriaren 29ko 7/2012 Legean ezarritako neurrien artean, besteak beste, zenbait eragiketa ekonomikotan eskudirutan ordaintzeko bideak erabiltzeari mugak jartzea dago, eta horrek ondoreak ditu Estatu osoan, foru lurraldeak barne hartuta. Egia esan, muga bat baino gehiago, benetako debekua da, eta betetzen ez bada, hasieran, administrazio-izaerako diruzko zehapena ezarriko da.



Urriaren 29ko 7/2012 Legean ezarritako neurrien artean, besteak beste, zenbait eragiketa ekonomikotan eskudirutan ordaintzeko bideak erabiltzeari mugak jartzea dago, eta horrek ondoreak ditu Estatu osoan, foru lurraldeak barne hartuta. Egia esan, muga bat baino gehiago, benetako debekua da, eta betetzen ez bada, hasieran, administrazio-izaerako diruzko zehapena ezarriko da.

Eskudirutan ordainketak egiteko muga/debeku hori 2012ko azaroaren 19an jarri zen indarrean, 7/2012 Legea BOEn argitaratu eta 20 egunera.

Lege honen ondoretarako, "eskudirutan" ordaintzea da diru-papera edo txanpon metalikoak ematea, baita eramailearentzako txekuek edo eramaileari ordaintzeko beste edozein bide.

Debekatzen diren eskudiruzko ordainketak dira betekizun hauek betetzen dituztenak: alderdietako bat enpresaburua edo profesionala da, Espainiako lurraldean egin eta ordaintzen dira, eta horien zenbatekoa edo balioa, atzerriko txanponekin ordaintzen bada, 2.500 eurokoa edo

handiagoa izatea (15.000 euro ordaintzailea Espainian bizi ez den pertsona fisikoa bada).

Legean esanbidez ezarri da kreditu-erakundearen bitartez egindako kobrantza eta ordainketetan eta partikularren artean egindako eragiketetan muga horrek ez daukala eraginik. Hori dela eta, neurri horretan "eskura" egindako transakzioak soilik aipatzen dira, hots, alderdi batek enpresaburu edo profesional moduan jarduten duenean.

2.500 euroko gehieneko zenbatekoa zehazteko, "eragiketa" bakoitza modu bakartuan hartzen da kontuan, hau da, zatika kobratu ahal izan diren zenbatek guztiak batzen dira.

Onetsitako neurria eraginkorra izan dadin, 7/2012 Legean zehapen-araubidea ezarri da, ordaintzailearengan zein hartzailearengan eragina duena, modu solidarioan. Horren arabera, aipatu muga betetzen ez bada, arau-hauste larria izango litzateke, eta eskudirutan ordaindutako zenbatekoaren %25eko isuna ezar daiteke. Zehapena bateragarria da balizko beste zehapen batzuekin, eta tributuzko izaerako

zehapen moduan barik administrazio izaerako zehapen moduan hartzen denez, ez dira murrizketak onartzen, ez ados egoteagatik ez goiz ordaintzeagatik. Iraungitze epea 5 urtekoa da.

Garrantzitsua da azpimarratzea ez direla bi zehapen, zehapen bakarra baino. Horretan, bi alderdiak, ordaintzailea eta hartzailea, arau-hausleak dira, eta printzipioz, solidariorioa denez, bietako edozeini eskatu ahal zaio.

Hala ere, Legean ezarri da alderdi esku-hartzaileetako batek eragiketa Zerga Administrazioako Estatu Agentzian (ZAEA) salatzen bada, eragiketaren deskripzioa, zenbatekoa eta beste alderdiaren nortasuna adieraziz, ordaindu eta hurrengo 3 hilabeteren barruan gehienez, alderdi hori erantzukizunetik salbuetsita geratuko dela, baina salbuespen hori salatzen duen lehenengoari soilik aplikatzen zaio. Azken finean, "damutzeari" emandako saria da. Ez du zehapena murrizten; horren ordez, Administrazioa beste alderdiarengana zuzendu daiteke kobratzeko. Alderdi hori guztiz identifikatuta egongo da salaketan.

ZAEAREN web orrian, [www.aeat.es](http://www.aeat.es), salaketa horiek izapidetzeko prozedura bat jarri da, eta itxuraz, erabiltzen ari dira. Izan ere, arauak 11 hilabeteko indarraldia duela, 2.200 salaketa baino gehiago izapidetu dira.

Neurri berri honen ezagutza eta irismena errazteko, ZAEAK Informa bere programan (2012.12.14) zenbait galdera eta erantzun argitaratu ditu, eta horien bidez zalantzazkoak izan daitezkeen kasu batzuk argitzen dira. Era berean, Bizkaiko Enpresaburuaren Konfederazioak, 2013ko otsailean, "galderarik ohikoenak" biltzen dituen zirkularra argitaratu du. ZAEAREN Informa programan eta CEBEK gidan argitaratutako galderen erantzunetatik, hauek azpimarratuko ditugu:

- Laburbiltze-fakturak eman zein ez eman, 2.500 euroko muga eragiketa bakoitzarentzat da, banaka hartuta.
- Segidako traktuko eragiketetan (besteak beste, hornikuntzak eta errentamenduak ordaintzea), zenbatekoa zehazten da kontratuan ezarritako fakturazioaren eta kobrantzaren periodikotasunaren arabera. Hori dela eta, ez dira batu behar kontratua indarrean dagoela urte batean fakturatutako eragiketa guztiak.
- Eskudiruko ordainketa 2.500 eurotik beherakoa izan arren, eragiketaren zenbatekoa kopuru horretatik gorakoa bada, eragiketa ezin da eskudirutan ordaindu, ezta modu partzialean ere. Horrek esan nahi du 2.150 euroko eragiketa ezin dela ordaindu 2.500 euroko txeki izendunarekin eta 10 euroko billetearekin. Edonola ere, azpimarratzekoa da, kasu hauetan, zehapenak eskudirutan ordaindutako prezioaren zatian soilik izango lukeela

eragina, hau da, zehapenaren oinarria eskudirutan ordaindutako zatiarekin bat etorriko da beti.

- Eragiketa baten aurrekontua 2.500 eurotik beherakoa bada eta hortik kopuru bat eskudirutan aurreratzen bada baina amaierako zenbatekoa 2.500 eurotik gorakoa bada, eskudirutan ordaintzeko debekuak ordaintzeko dauden kopuruetan soilik izango luke eragina.
- Abokatuek jasotzen dituzten funtsen horniduretan ere muga/debeku horrek eragina du, horien zenbatekoa 2.500 eurokoa edo handiagoa denean, betiere, lanbide-ordainsariaren konturako ordainketak direnean. Emandako kopuruak "kitagarrien" kontzeptuan eman direla frogatzea interesdunei dagokie.

Eskudirutan ordainketak egiteko debekuari buruzko araudi berria eta hori ez betetzeak dituen zehapen zuzenak aztertu ondoren, ikus dezagun ea horietatik zergetan ondorioz sor daitekeen.

ZAEAREN eta CEBEKEN esanetan, eskudirutan egindako ordainketen muga ez betetzeak ez duela eragotziko gastua eta jasandako BEZAREN kuota deduzigarria izatea, betiere, horretarako eskatutako betekizun materialak eta formalak betetzen badira. Hala ere, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako lurralde historikoetan 2013an onetsitako foru arautan zenbait neurri ezarri dira zerga-iruzurraren kontrako borroka indartzeko, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergari lotutako artikulua aldatu dira, eta kengarritzat hartzen ez diren gastuen artean sartu dira 7/2012 Legearen 7. artikuluan eskudirutan egindako ordainketen mugei dagokienez ezarritakoa betetzen ez duten eragiketetatik eratorritako gastuak (neurri horrek 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondoreak).

Nire ustez, lurralde historiko horietako zergadunentzat ezarritako zehapen bikoitz hori gehiegizkoa da profesionalak, enpresaburuak edo, hala denean, sozietateak faktura edo justifikazio-agiria duenean, eragiketa behar den moduan erregistratu duenean eta, gainera, gastua sarrerei zuzenean lotuta dagoenean.

Gaur egun, egia da 2.500 eurotik gora eskudirutan egindako ordainketa debekatuta dagoela, zenbatekoaren %25ari dagokion diruzko isuna ezar dakiokela, eta gure kasuan behintzat, lotuta duen gastua ez dela kengarria izango. Hala ere, azken zati hori ulertzea zaila da, ordainketa hori gastu batekin lotuta dagoenean, gastu hori horrela sailkatu izan balitz beste modu batean ordainduko bailitzateke. Edonola ere, gutxienez, jakitea garrantzitsua da.

Bilbo, 2013ko urriaren 21a

## Envía UNICEF al 28028 y ayúdanos a seguir salvando vidas

18.000 NIÑOS MUEREN CADA DÍA POR CAUSAS QUE PODEMOS EVITAR.

1 SMS = 1 NIÑO VACUNADO CONTRA ENFERMEDADES MORTALES.

AHORA NO PODEMOS PARAR.

COSTE DEL MENSAJE 1,20€ ÍNTEGRO PARA UNICEF. Válido para Movistar, Vodafone, Orange y Yoigo. Número sin fines comerciales. Operado por UNICEF n.atn.cte:902080900 unicef.es. Información legal y protección de datos: unicef.es

unicef   
unicef.es/ahoranopodemosparar

# KONKURTSOKO GORABEHERAK HARTZEKODUN BATI KOMENI ZAIO ZORDUNAREN KONKURTSOA ESKATZEA?



Carlos Ais

“Gorabeheren” azken atalean, aurreratu genuen hurrengo gaia “nahitaezko konkurtsoa” izango zela. Konkurtso hori da hartzekodunak eskatuta hasten dena. Hartzekodunak, ekimena hartuta, epaitegiari eskatzen dio bere ordunaren konkurtsoa adierazteko. Hartzekodun horrek bere kreditua ez du zuzenean kobratu nahi, or har ezin izan duelako egin; horren ordez, zorduna konkurtso prozesu baten mende jartzen du, eta horren eraginez, kudeaketa-askatasuna galduko du, likidazio-arriskua izango du eta arriskua izango du erantzukizuna enpresaz ordunaren administratzaileen esku jartzeko. Hori dela eta, batzuetan, nahitaezko konkurtsoa presio-argudio moduan erabiltzen da konkurtso-prozedura batean murgilduta egon nahi ez duen zordunarekin egindako negoziazioan —prozesu horretan, oro har, konkurtsoa nahitaezkoa denez, administrazio-gaitasuna eta ondarea erabiltzeko gaitasuna modu automatikoan galduko ditu —eta ordaintzea, zorra bermatzea edo hartzekodunarekin adostea aukeratuko du.

Edonola ere, errealitateak erakusten du nahitaezko konkurtsoak inola ere ez duela bermatzen hartzekodunak bere kreditua berreskuratzea. Gainera, arrisku adu bere eskaerari jaramoni kez egiteko eta kostuak eta kalte-ordain bat ordaintzera kondenatzeko. Agian horregatik, irudi hau ez da asko erabiltzen. Espainian, 2013ko bigarren hiruhilekoan, nahitaezko konkurtsoak konkurtso guztien %5,09 izan ziren; EAEn, %4,16, eta Bizkaian, %3,63. 2012. urte osoan, Bizkaian %1,72 soilik izan ziren, EAEn %1,61, eta Espainian, %6,18 (Iturria: Estatistika Institutu Nazionala).

Hartzekodun guztiak legitimatuta daude zordunaren konkurtsoa eskatzeko (zorduna pertsona juridikoa bada, zorregatik modu pertsonalean erantzuten dutenak ere legitimatuta daude), eta horretarako, legearen arabera kaudimengabezia erakusten duten egitateetako batean oinarritu behar dira: alferreko gauzatze berezia eta largespena, orokorra edo sektorekoa, honen arabera: betebeharrak guztietan edo legearen arabera zordunaren pasiboan bereziki sentikorrek diren motetako batean eragina izatea, tasatutako beste egitate batzuk ere kontuan hartuta.

Modu sinplean, esan dezakegu hartzekodunak nahitaezko konkurtsoa eska dezakeela huts egindako gauzatze “titulu indibiduala” aurkezten duenean edo largestearen edo zordunak ordaintzeko ez betetzearen “egoera orokorra” egiaztatzen duenean.

Lehenengo kasua gertatzen da hartzekodunaren eskabidea oinarritzen denean bere aldeko gauzatzea edo premiamendua eman duen tituluari, enbargotik ez badira atzeratzen ordaintzeko behar den besteko ondasun libererik.

Bigarren kasua gertatzen da eskabidea oinarritzen denean hauetan: zordunaren betebeharren ordaintzeta arruntaren largespen orokorra; zordunaren ondarean oro har eragiten duten ordaindu gabeko gauzatzeen ondoriozko enbargoak egotea; zordunak bere ondasunak presaka edo modu galgarrian ostendu edo likidatzea, edo konkurtso eskabidearen aurreko hiru hilabeteetan eska daitezkeen zerga-betebeharrak ordaintzeko betebeharrak modu orokorrean ez betetzea, hots, Gizarte Se-

gurantzako kuotak ordaintzea, azken hiru hilekoei dagozkien lan-loturetatik eratorritako soldatak eta kalte-ordainak eta gainerako ordaintzak ordaintzea.

